

## **DEIALDIA**

### **FUNTSATZEA**

Bi faktoreri erantzuten dieten hainbat lankidetzaz ildo garatzen dihardute Gasteizko Udalak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako Fakultateak.

Lehenik eta behin, agerikoa da helburu eta interes komunak dituztela bi erakundeek arte plastikoen sustapenari dagokionez, eta, hortaz, arte ederren sustapenari eta zabalkundeari dagokionez.

Bigarrenik, 2012an lankidetzaz hitzarmena izenpetu zuten Arte Ederretako Fakultateak eta Gasteizko Udalak, arte ederretako ikasleen sortze lana zabaltzerako orduan lankidetzaz bultzatzeko asmoz, bai eta prestakuntza praktikoa hobetzeko zein, sorkuntza arloko azken joerak erakutsiz eta haiekin mintzatuz, kaleko gizartearen errealitatearekiko lotura zuzena ezartzeko asmoz ere.

Erakunde bien arteko lankidetzak haien giza baliabideak zein materialak ahalik eta hoberen erabil daitezzen sustatzea du xede, batera burutzen diren jardueren bidez, zeinen artean honakoa baitago.

### **OINARRIAK**

#### **1. Xedea**

Sorkuntza artistikoko lau proiektu hautatzea da deialdi honen xedea, ekoizpen-fase aurreratuan daudenak, 2021-2022 aldirian Montehermoso kulturuneko Jovellanos aretoan bakarkako erakusketetan aurkeztu ahal izateko.

#### **2. Partaideak**

Banaka nahiz taldeka aurkeztu ahal izango dituzte proiektuak EHUko Arte Ederretako Fakultateko bigarren zikloan, graduondoko ikastaroetan edo doktoretza-ikastaroetan matrikulatutako ikasleek. Talde gisa aurkeztuz gero, ordezkari bat izendatu beharko da.

#### **3. Proiektuak**

Proiektu argitaragabea aurkeztu beharko da. Irizpide hauek artuko dira aintzat proiektuak hautatzeko orduan:

- a) Proiektuaren interesa eta kalitatea.
- b) Proiektuaren bideragarritasuna —aurkeztutako dosierraren eta dokumentazio osagarriaren arabera—

Bi ataletan emandako puntuak batu ondoren puntuazio-berdinketarik egokituz gero, Gasteizko udalerrian jaiotakoek edota bertan bizi direnek izango dute lehentasuna.

#### 4. Baliabideak

Montehermoso kulturuneak 3.600 euroz hornituko du deialdia hautatzen diren proiektuen egileen artean banatzeko. Ordaintzen den zenbatekoak kontzeptu hauek barne hartuko ditu:

1. Obra ekoitzi eta garraiatzeak sortzen dituen gastuak.
2. Proiektuaren egilearen bidaia eta egonaldiek sortzen dituzten gastuak, behar izanez gero.
3. Obra ekoiztearen ondoriozko ordainsariak eta egile eskubideei dagozkienak.

Adierazitako diru-kopuruak barne hartuko ditu zergak, behar izanez gero egingo den PFEZaren atxikipena gorabehera. Zenbateko hori Gasteizko Udalaren administrazio-prozedura baliatuz ordainduko dira diru-kopuru horiek.

Erakusketa muntatu eta komunikatzeko beharrezko diren Montehermoso kulturuneko azpiegiturak, tresneria teknikoa, aholkularitza eta giza baliabideak gehituko zaizkio zenbateko horri.

#### 5. Proiektuak aurkezteko epea:

Parte hartu nahi dutenek euskarri digitalean bidali beharko dute eskatzen den dokumentazioa, 50 MBeko muga gainditu gabe, PDF dokumentu bakar batean. 2021eko ekainaren 11n bukatuko da dokumentazioa aurkezteko epea.

Gasteizko Udalaren webgunean eskuragarri dagoen eredia baliatuz aurkeztu beharko da eskabidea.

#### 6. Eskabideak aurkeztea:

- Aurrez aurre:  
herritarrei laguntzeko bulegoetan.
- Online:  
erregistro elektronikoaren bitartez.
- Legean nahiz indarrean dauden xedapenetan ezarritako beste edozein bitarteko baliatuz.

Proiektuen hautaketa bukatu ondoren, aukeratu ez diren proiektuen dokumentazioa suntsitu egingo da. Hautatutako proiektuen txostenak eta dokumentazio osagarria Montehermoso kulturuneko Dokumentazio Zentroaren jabetzan geratuko dira.

#### 7. Dokumentazioa

Agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskabidea, behar bezala beteta.
- Proiektuaren egileen nortasun-agiriaren edo baliokidearen fotokopia.
- Arte Ederretako Fakultateko matrikula-egiaztagiria (2020-2021 ikasturtea).
- Curriculuma.

- Aurreko lanen dosier laburra.
- Proiektuaren dosierra, hauek biltzen dituenak:
  - Proiektuaren izenburua eta garapena.
  - Proiektuaren zirriborro eta irudiak, jpg formatuan (gutxienezko bereizmena: 72 ppp).
  - Proiektuaren egungo egoera.

Atzera botako dira atal honetan zehaztutako dokumentazio guztia ez dakarten eskabideak.

## 8. Hautaketa-batzordea

Hauek osatuko dute hautaketa-batzordea:

- Proiektuen komisarioa
- EHUko Arte Ederretako Fakultatearen gutxienez ordezkari bat
- Montehermoso kulturuneko burua

Ezingo da batzorde horrek hartutako erabakiaren kontra jo.

## 9. Onuradunen betebeharrak

Deialdi honetan hautatutako pertsona edo taldeek konpromiso hauek hartuko dituzte:

- a) Laguntza onartzen dela idatziz berrestea.
- b) Hautaketa-batzordeak proiektua garatzeko ematen dituen arauak betetzea.
- c) 2021-2022 aldian Montehermoso kulturuneko Jovellanos aretoan proiektua aurkeztea.
- d) Aurkeztutako proiektuan aldaketarik bada, horren berri idatziz ematea.
- e) Jabetza intelektualaren eskubideen titularra izatea eta lana aurretik inoiz erakutsi gabea eta originala dela bermatzea.

## 10. Proiektuen garapena eta aurkezpena

Montehermoso kulturuneak eta EHUko Arte Ederretako Fakultateak izendatzen duten pertsonak koordinatuko du hautatutako proiektuen garapena eta jendaurreko aurkezpena, eta Montehermoso kulturuneko ekipo teknikoaren laguntza izango du, baita hari atxikitako baliabide eta azpiegitura teknikoak ere.

Baldin eta uste bada lana ez dela deialdian aurreikusitako moduan eta epeetan gauzatzen ari, besterik gabe, laguntza kendu ahal izango da.

## 11. Proiektuen zabalkundea

Proiektuen komunikazio egokirako beharrezko den informazioa eta dokumentazioa emateko konpromisoa hartu beharko dute beren gain artistek. Gainera, hautatuak gertatuz gero, proiektuek sortutako materiala erreproduzitu eta banatzeko baimena emateko konpromisoa

hartzen dute —proposamenari zabalkundea emateko jarduera guztietan—. Hautatzen diren proiektu eta obrak egileen jabetzakoak izango dira, eta eskubideak lagatzeak ez du berekin ekarriko, inolaz ere, inongo bateraezintasunik, egileek, proiektua gauzatzeaz batera, horiek erabiltzerik izan dezaten.

## **12. Oinarriak interpretatu eta onartzea**

Oinarri hauek interpretatzean sortzen diren zalantzak deialdirako osatu den hautaketa-batzordeko kideek ebatziko dituzte.

Deialdi honetan parte hartzeak oinarriak oso-osorik onartzen direla esan nahiko du. Oinarri hauetakoren bat edo laguntzak emateko baldintzetakoren bat ez betetzea nahikoa arrazoi izango da horiek bertan behera geratzeko, galda litezkeen bestelako erantzukizunak gorabehera.

Argibide **gehiago**:

Montehermoso kulturunea.

Frai Zacarias Martinez kalea, 2

01001 Gasteiz

+34 945 161 830

administracion@montehermoso.net

www.montehermoso.net